

## "HATOR EZTABAIDARA"

Eusko Legebiltzarraren iritziz, lehentasunezko eginbeharra da honako printzipio hauek sustatzea: bere funtzionamenduaren gardentasuna, herritarrek gauza publikoetan parte hartzea eta instituzio hau gizartearekin batzen duten loturak indartzea. Helburu horrekin abiarazitako ekinbideetako bat dugu, hain zuzen ere, "**Hator eztabaidara**" izeneko programa pedagogikoa. Ekimen horren helburua da gizarte demokratikoen ezaugarri diren baloreak zabaldu eta indartzea eta balore horiek Legebiltzarrarekin lotzea. Hona balore horietako batzuk: aniztasuna, iritzi-askatasuna, aukera-berdintasuna, eztabaida eraikitzailea eta adostasuna bilatzea. Helburu nagusietako bat dugu, halaber, ikasleei instituzio Ahu ezagutaraztea eta gazteei Euskal Autonomia Erkidegoko errealitate sozial eta politikoa parte harraraztea.

Horretarako, "Hator eztabaidara" ekimenaren barruan hainbat eztabaida antolatzen ditugu ikastetxeetan. Gero, behin gazteen bilkura parlamentarioak egin ondoren, gaur egungo gai batzuk hartu, gai horiei ikasleen programa bakoitzeko erreferentziak baloreak aplikatu eta zenbait jarrera adostu ateratzen dituzte. Ekimen horiek Eusko Legebiltzarrak herritarrek parte hartzeko dituen mekanismoen barruan sartzen dira. Eztabaida bakoitza irabazi asmorik gabeko eta proposatutako gaian inplikaturako erakunde laguntzaile batek dinamizatzen du.

Eusko Legebiltzarrari eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari egokia iruditzen zaie metodologikoki "Hator eztabaidara" ekimena baloretako heziketarako berarizko ekimenak garatzeko.

Zeregin horretan, erakunde biek oso positiboki baloratzen dituzte gizartetik abiatutako partaidetza, ekimenak eta ekimenak, hitzarmen honen helburuarekin bete-betean bat datozenak, hala nola "Milurteko Helburuak" kanpaina, Nazio Batuen Erakundeak garatzen duena, bai bere edukiarengatik bai gizarteko erakundeekin lankidetzan aritzeko planteatzen duen ereduarengatik ere.

Programa honetan proposatzen da ikasturtean zehar gutxienez bi saio parlamentario egitea, EAEko ikastetxeetan gaur egungo gai bati buruzko hausnarketa-dinamika bat abiarazteko, eztabaida hori gizarteak Eusko Legebiltzarrak egiten duen lan instituzionalari egiten dion ekarpena izan dadin.

Hori lortzeko prozedura hau da: proposatutako gaiari buruzko eztabaidak egiten dira ikastetxeetan, eta gero Legebiltzarrean batzorde-bilkurak eta osoko bilkurak egiten dira, eta hortik adierazpen bat ateratzen dute. Adierazpen horretan, proposatutako gaiari buruz ikasleek ikasi dutena jasotzen da, bai eta bakoitzak denak delako arazoa hobetzen laguntzeko egin dezakeena eta instituzioei egiteko eskatzen dietena ere. Onetsitako dokumentua Eusko Legebiltzarraren parte hartzeko mekanismoetan sartzen da.

Ikastetxeetako eztabaidak dinamizatzeaz eta proposatutako gaiei buruzko material pedagogikoa prestatzeaz, irabazi asmorik gabeko erakunde laguntzaile bat arduratzen da. Lan hori egiteko erabilitako material guztia argitaratu egiten da gero, ele bitan eta multimedia-euskarrian, hezkuntza-komunitate osoa horretaz baliatu ahal izateko.